

IV.—Ikastetxetarako bear diran euskal-liburutxoak batean biltzea, ta zer utsunetan ote gauden gai ontan jakitea oso on litzake : onetxen ardura egotzi zaie Intzagarai, Mujika ta Lekuona jaunai.

V.—Eguskitza jaunak bere lan bat irakurri digu. Azkuek bere Morfologian, 126 orian *-ti* atzizkitzaz auxe dasa. «Denota imperfección en el sujeto a quien se aplica el adjetivo así derivado. Es decir, que tiene cierto dejo peyorativo». Eguskitzak asaten dio txar-tzarako usai ori ezduela *rik* berez, baizik txar danari ezartzen zaionean baño.

VI.—Altube jaunak beste lan bat irakurri digu, atzizki *a*, *ok*, *ik* gai bidetzat arturik.

VII.—Azkue jaunak bere lan bat agertu digu: *Conjugación del verbo guipuzcoano y del subdialecto de la frontera* idazkuntzat darama. Beste gai batzuek biarko utzirik otoitzez amaitu da batzañaldi au.

---

### Donostia'n, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1930'ke Garagañilaren 26'an.

Auruko batzaldian aitatzen diran euskaltzain berak bildu dira eta urgazletatik Ormaetxea eta Gabel. Otoitzez asi da.

I.—Iztegi-beñiaren lanetan jardun degu eta erderazko itz *cancionero* arteraño iritxi gera.

II.—Bähr jaunak bere eskutitz batez esaten digu agindu zaion lanaren itzulpena egingo duela.

III.—Azkue Jose Aitak eskeñak ematen dizkio Euskaltzaindiari urgazle izendatu duelako.

IV.—Eusko-Ikaskuntzak Bergarako Batzar nagusirako dei egiten dio Euskaltzaindiari. Onen izenez antxe izango da gure buru dan Azkue jauna.

V.—Elissalde jauna euskaltzain aukeratu degu abo batez ta Landeñetxe zanaren ordez.

Ta beste gairik izan ez ta otoitzez amaitu da batzaraldi au.

---

### **Bilbo'n Euskaltzaindiaren etxean, 1930'ko Urri- la'ren 23'an.**

Batzar ontan euskaltzain jaun abel bildu dira: Azkue maipuru, Urkijo, Olabide, Eguskitza, Intzagarai, Altube, Lakonbe, Elissalde (aukeratua) eta urgazletatik Ormaetxea eta Manterola. Otoitz egin da.

I.—Eguskitza eta Manterola jaunak esan digute : zein jai edeñak egin dituzten aurtien Gernikan *Jaungoiko-Zale*-k. Bazkun eliztar oni asko zor dio Euskal-erriak nonnai aietazko lanez dabilelako. Euskaltzaindiak pozik entzun ditu *Jaungoiko-Zale*-n lanak ta zorionpide berezienak damazkio.

II.—Intzagarai jaunak aurrez egotzi zitzaion ardurapideari jañairik esan digu : zenbat eskola- liburu euskaldunak orain arteraño argitaratu diran. Beste batzuek argitaratu gabe dagoz. Erabaki da : aben egileai otoi egitea, beren lantxoak lenbailen argitaratu ditzaten, garaia danez, euskal-liburutxoak bear aña izan ditzagun.

III.—Ongi jakiña da, gure mendi egaletan alako *eskola-txikiak* badirala, an eta emengo Udalak eratsiak, inguruko neska ta mutilai aurreapiden bat emateko. Euskeraz eman oi zaie. Euskaltzaindiak deritza : euskeraz ta agian orain arterañoako baño aña geia goz, lan edo oitura ontan jañaitu bear dala. Begoz gure ondoan, beste lan askotan bezela, *Eusko-lkas-*